

18/13 IRIZPENA

Nélida Zaitegi, lehendakaria Xabier
Aizpurua
Josean Bueno
Juan Carlos Jauregui
M^a Teresa Ojanguren
Mikel Pagola
Begoña Pedrosa
Ismael Redondo
Eva Blanco, Idazkari teknikoa

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2018ko irailaren 20ko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: **euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskarazko hizkuntza-tituluen eta -ziurtagirien bidez egiaztatetik salbuesteko apirilaren 3ko 47/12 Dekretua aldatzen duen Dekretu proiektuari buruzkoa.**

I. AURREKARIAK

Euskararen erabilpena normalizatzeko oinarritzko 10/1982 Legeak bi hizkuntza ofizialen erabilera erregulatzen du Euskal Autonomi Erkidegoaren esparruan

64/2008 Dekretuak euskararen ezagutza egiaztatzeko titulu eta ziurtagirien baliozkotzeak ezarri zituen eta Europako Hizkuntzen Erreferentziazko Marko Komunera egokitu zituen.

47/2012 Dekretuak, apirilaren 3koa, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzea eta euskarazko hizkuntza-tituluen eta -ziurtagirien bidez egiaztatetik salbuestea ezartzen ditu

II. EDUKIA

Dekretu proiektu honek artikulua bakarra eta azken xedapen bat ditu.

Artikulu bakarrak aldatu egiten du xedapen gehigarria, zeinak ahalmena ematen baitio Hezkuntza Sailaren mendeko Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzari Dekretu honen I. eta II. eranskinak eguneratuko dituzten titulazio berriak sartzeko, beharrezkoa denean.

Era berean, aldatu egiten du I. eranskina, zeinak zehazten baitu euskaraz egindako unibertsitate-ikasketetatik zeintzuk dauden salbuestita hizkuntza-ziurtagiria aurkeztetik eta zein maila dagokion kasu horietako bakoitzari.

Azken Xedapenak dio araua indarrean sartuko dela EHAAn argitaratzen den egunetik aurrera.

III. BALORAZIO ETA PROPOSAMENAK

Euskadiko Eskola Kontseiluak 47/2012 Dekretua aztertu zuen 11/06 irizpenean eta balorazio orokor positiboa egin zion.

Kasu honetan, aldaketak I. eranskinean bakarrik du eragina, ikasketa hauek erantsi direlarik: *Euskal Hizkuntza eta Kultura gradua*.

Gainera, ahalmena ematen dio Hezkuntza Sailaren mendeko Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzari aldaketa gehiago egiteko eta eranskinak eguneratzeko.

Kontseiluak positiboki baloratzen du proposatutako aldaketa, batik bat etorkizunean eman daitezkeen aldaketak errazten dituelako.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbo, 2018ko irailaren 20a

IDAZKARI TEKNIKOA

Sin.: EVA BLANCO OCHOA

Ikus-Onetsia

PRESIDENTEA

Sin.: NÉLIDA ZAITEGI DE MIGUEL

HEZKUNTZA SAILBURU ANDREA